



**EKONOMIA- ETA FINANTZIA-INFORMAZIOA, 2018
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA**



KPMG Auditores, S.L.
Iberdrola dorrea
Euskadi plaza, 5
17.solaiura
48009 Bilbo

Kontu-ikuskari independente batek egindako urteko kontu- ikuskapen txostena

(Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desberdintasunik izanez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna.)

Guggenheim Bilbao Museoko Fundazioaren Patronatuko kideentzat

Iritzia

Guggenheim Bilbao Museoren Fundazioaren (Fundazioa) urteko kontuak ikuskatu ditugu, 2018ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitzen den ekitaldiari dagozkion emaitzen kontua eta memoria biltzen dituztenak.

Gure iritiz, erantsitako urteko kontuek Fundazioaren 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzen irudi zehatza adierazten dute alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den finantza-informazioko esparru arauemailearekin (memoriaren 2. Oharrean identifikatzen dena) eta, bereziki, bertan bildutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritik.

Iritziaren oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzari buruzko jarduera erregulatzen duen araudiari jarraitu diogu. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatuko dira gure txostenaren Urteko kontuen auditoretzarekin lotutako auditorearen erantzukizunak atalean.

Etikako errekerimenduekin bat etorritik, Fundazioarekin loturarik ez dugun erakundea gara. Errekerimendu horien artean daude independentziako errekerimenduak, Espainian urteko kontuen gure kontu-ikuskapenari aplikatzekoak direnak, kontu-ikuskapeneko jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Zentzu horretan, kontu-ikuskapeneko ez den bestelako zerbitzurik ez dugu eskaini. Halaber, araudi erregulatzailerik horretan ezarritakoaren arabera, ez da eman gutxieneko independentzia arriskuan jarri duen egoera edo baldintzarik.

Gure ustez, lortu dugun kontu-ikuskapeneko ziurtasuna nahikoa eta egokia da kontu-ikuskapenari buruzko gure iritzia emateko.

Kontu-ikuskapenaren alderdi azpimarragarrienak

Gure iritzi profesionalaren arabera, epe honetako urteko kontuetako gure kontu-ikuskapenean huts materiala egiteko arrisku gisa hartu direnak dira kontu-ikuskapeneko alderdi azpimarragarrienak. Arrisku horiek aztertzeke, urteko kontuen gure ikuskapeneko testuingurua hartu dugu kontuan, baita kontu horien inguruko gure iritzia emateko ere. Ez dugu arrisku horiei buruzko iritzia bereizita eman.

Jarduera propioaren diru-sarreraren aitortpenak (4. eta 24. oharra)

Diru-sarreraren aitortpena gure kontu-ikuskapenaren alderdi garrantzitsua da, oso adierazgarria delako eta oker materiala gertatzeko aukera dagoelako; batez ere ekitaldia ixtean, sinatutako hitzarmenetan eta kuotetan oinarrituta denbora zuzen egoztearekin lotuta. Fundazioak aitortzen ditu kideen eta afiliatuen, babesleen eta laguntzaileen, eta diru-laguntzen kuotei dagozkien sarrerak, baita epe jakin batean zerbitzua eskaintzeagatik jasotako dirua eta salmentak ere, noiz kobratu den edo kobratuko den kontuan hartu gabe. Horregatik, ekitaldia ixtean balioespenak egin behar dira.

Gure kontu-ikuskapen prozeduren artean, besteak beste, honako hauek barne hartu ziren: epe egokian salmenten kontabilizazioari buruzko kontrolak ebaluatzea; bazkideen eta afiliatuen, erabiltzaileen eta babesleen kuoten bidezko sarreraren zenbateko egokiagatik, epe aproposan aukeratutako erregistroaren lagin baterako berriro kalkulatzeko; eta ekitaldia ixtean kobratzeko zegoen saldoaren babesleen lagin baterako baieztapena lortzea. Gainera, urteko kontuetan erakutsitako informazioak aplikatzeko den finantza-informazioko esparru arauemailearen baldintzak betetzen dituen ebaluatu dugu.

Administratzaileen erantzukizuna urteko kontuei dagokienez _____

Fundazioaren administratzaileak arduratzen dira erantsitako urteko kontuak egiteaz, Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zuzena erakusteko, Espainian erakundeari aplikatzeko zaion finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin bat etorritik. Halaber, iruzurraren edo akats baten ondorioz, oker materialik izan ez dezaten urteko kontuak prestatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkien barne-kontrolaz ere arduratzen da.

Urteko kontuen prestakuntzan, funtzionatzen ari den enpresa gisa jarraitzeko Fundazioak duen ahalmena baloratzeko ardura dute administratzaileek. Kasu horretan, funtzionatzen ari den enpresarekin lotutako gaiak jakinaraziko ditu eta funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliko du, baldin eta administratzaileek erakundea likidatzeko edo bere operazioekin amaitzeko asmoa ez badute edo beste hautabide errealista bat ez badago.

Urteko kontuen kontu-ikuskapenarekin lotutako kontu-ikuskariaren erantzukizunak _____

Ondorengo helburu hauek ditugu: iruzur edo akats baten ondorioz, urteko kontuek, oro har, oker materialik ez dutela zentzuz ziurtatzea, eta gure iritzia bilduko duen kontu-ikuskapeneko txostena egitea. Zentzuzko ziurtasunak segurtasun-maila altua adierazten duen arren, ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapeneko jarduera bat erregulatzen duen araudi baten arabera egindako kontu-ikuskapen batek, beti, oker material bat hautemango duela, halakorik dagoen kasu guztietan. Okerrak iruzurraren edo akats baten ondorio izan daitezke, eta materialtzat joko dira, bakarka edo erantsita, urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela zentzuz aurreikus badaiteke.

Espanian indarrean dagoen kontu-ikuskapeneko jarduera erregulatzeko araudiarekin bat datorren kontu-ikuskapen baten parte bezala, gure judizio profesionala aplikatzen dugu eta kontu-ikuskapen osoan zehar eszeptizismo profesionala mantenduko dugu. Horretaz gain:

- Iruzuraren edo akatsaren ondorioz, urteko kontuetan oker materialen arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko kontu-ikuskapeneko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzia emateko oinarri bat eskainiko digun kontu-ikuskapeneko ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzuraren ondorioz oker materiala ez hautemateko arriskua akats baten ondorioz oker materiala ez hautemateko arriskua baino handiagoa da, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahita egindako hutsegiteak, nahita oker egindako adierazpenak edo barne kontrola saihestea ere ekar ditzakeelako.
- Kontu-ikuskapenerako barne-kontrol garrantzitsuaren ezagutza biltzen dugu, baldintzen arabera egokiak izango diren kontu-ikuskapeneko prozedurak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne-kontrolerako eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren ebaluatzen dugu. Halaber, kontabilitate-zenbatespenek eta administratzaileek emandako informazioa arrazoizkoa den ere ebaluatzen dugu.
- Administratzaileek funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia den ondorioztatzen dugu. Era berean, eskuratutako kontu-ikuskapeneko ebidentzian oinarrituta, Fundazioak funtzionatzen ari den enpresa izaten jarraitzeko duen gaitasunari buruzko zalantza azpimarragarriak sor ditzaketen gertakariekin edo baldintzekin lotutako zalantza materialik ote dagoen ere ondorioztatzen dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure kontu-ikuskapeneko txostenean urteko kontuetan jakinarazitako informazioa azpimarratu behar dugu. Bestela, jakinarazpen horiek egokiak ez badira, iritzi aldatu bat eman behar dugu. Gure kontu-ikuskapeneko txostena egin zen datara arte lortutako kontu-ikuskapeneko ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Hala ere, etorkizunean eman daitezkeen baldintzak edo gertakariak Fundazioa funtzionatzen ari den enpresa bat izateari uzteko arrazoia izan daitezke.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu —emandako informazioa barne—; halaber, irudi leiala adieraztea lortu ahal izateko, urteko kontuek transakzioak eta azpian dauden gertakariak ordezkatzen ote dituzten ebaluatzen dugu.

Besteak beste, planifikatutako kontu-ikuskapenaren irismenarekin eta hura egiteko unearekin, eta kontu-ikuskapenaren aurkikuntza azpimarragarriekin lotuta, erakundeko administratzaileekin komunikatzen gara, baita kontu-ikuskapena egiten dugun bitartean aurkitzen dugun barne-kontrolaren edozein hutsegite azpimarragarri jakinarazteko ere.

Guggenheim Bilbao Museoko Fundazioaren administratzaileei jakinarazi zaizkien arriskuen artean, gaur egungo aldiaren urteko kontuen kontu-ikuskapenean garrantzi handiagoa izan dutenak eta, ondorioz, arriskutsuenak izan direnak zehaztu ditugu.



Arrisku horiek gure kontu-ikuskapeneko txostenean deskribatu ditugu, lege-xedapenek edo arauzko xedapenek gai jakin bat publikoki jakinaraztea debekatu ez duten kasu guztietan.

KPMG AUDITORES SL

Kontu-ikuskarien Erregistro Ofizialean (ROAC) S0702 zenbakiarekin inskribatua

Mikel Arana Lechosa

Kontu-ikuskarien Erregistro Ofizialean (ROAC) 1708 zenbakiarekin inskribatua

2019ko maiatzaren 22a

FUNDACIÓN DEL MUSEO GUGGENHEIM BILBAO

2018ko eta 2017ko abenduaren 31eko balantzeak

(Eurotan)

(Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpen librea. Desberdintasunik izanez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna.)

<u>Aktiboa</u>	<u>2018</u>	<u>2017</u>
Ibilgetu ukiezina	12.112	-
Bestelako ibilgetu ukiezina	12.112	-
Ibilgetu materiala	1.977.858	2.177.700
Lursailak eta eraikuntzak	1.119.862	1.327.321
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	<u>857.996</u>	<u>850.379</u>
Guztira aktibo ez-arruntak	<u>1.989.970</u>	<u>2.177.700</u>
Izakinak	703.212	648.428
Jarduerara zuzendutako aktiboak	703.155	647.909
Hornitzaileentzako aurrerakinak	57	519
Erabiltzaileak eta berezko jardueraren bestelako zordunak	190.400	435.621
Merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste zenbait kontu	971.103	971.406
Salmenta eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak	310.805	180.070
Bezeroak, taldeko erakundeak eta elkartuak	27.086	20.140
Langileak	32.325	16.700
Administrazio publikoekiko bestelako kredituak	600.887	754.496
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	215	215
Bestelako finantza-aktiboak	215	215
Epe laburrerako periodifikazioak	36.235	35.298
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	5.531.924	5.351.819
Diruzaintza	<u>5.531.924</u>	<u>5.351.819</u>
Aktibo arruntak guztira	<u>7.433.089</u>	<u>7.442.787</u>
Aktiboa guztira	<u>9.423.059</u>	<u>9.620.487</u>

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

Balantzeak

2018 eta 2017ko abenduak 31

(Eurotan)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpena)

<u>Pasiboa</u>	<u>2018</u>	<u>2017</u>
Funts propioak	2.256.957	1.877.124
Fundazio-zuzkidura		
Fundazio-zuzkidura	1.873.438	1.288.702
Erreserbak		
Bestelako erreserbak	3.686	3.686
Ekitaldiko soberakina	379.833	584.736
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.721.480	1.837.903
Ondare garbia guztira	3.978.437	3.715.027
Epe luzerako zorrak	1.153.835	1.392.762
Kreditu-erakundeekiko zorrak	990.000	1.210.000
Bestelako finantza-pasiboak	163.835	182.762
Pasibo ez-arruntak guztira	1.153.835	1.392.762
Epe laburrerako zorrak	262.162	257.485
Kreditu-erakundeekiko zorrak	225.409	226.390
Bestelako finantza-pasiboak	36.753	31.095
Epe laburrerako zorrak EEGG eta EEAArekin	203.316	-
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak	3.824.925	4.255.213
Hornitzaileak	139.577	150.635
Hornitzaileak, eta taldeko enpresa eta erakunde elkartuak	71.569	33.274
Hainbat hartzekodun	3.189.499	3.660.277
Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)	145.003	131.340
Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	277.107	279.687
Bezeroen aurrerakinak	2.170	-
Epe laburrerako periodifikazioak	384	-
Pasibo arruntak guztira	4.290.787	4.512.698
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	9.423.059	9.620.487

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako urtaldietarako emaitzen kontuak

(Eurotan)

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpena)

	2018	2017
Berezko jardueraren diru-sarrerak	16.944.582	17.700.702
Elkartuen eta afiliatuen kuotak	783.720	759.025
Sustapenen, babesleen eta laguntzaileen sarrerak	4.960.716	5.661.677
Ekitaldiaren soberakinari egotzen zaizkion diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11.200.146	11.280.000
Salmentak eta merkataritza-jardueraren beste sarrera arrunt batzuk	10.954.660	10.392.626
Salmentak	9.583.837	9.091.004
Zerbitzugintza	1.370.823	1.301.622
Hornikuntzak	(2.703.374)	(2.630.713)
Salgaien kontsumoa	(1.693.728)	(1.652.578)
Lehengaien eta bestelako ondasun kontsumigarrien kontsumoa	(985.665)	(972.654)
Salgaien, lehengaien eta bestelako hornikuntzen narriadura	(23.981)	(5.481)
Jardueraren bestelako diru-sarrerak	4.287.306	4.175.437
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	4.271.375	4.158.641
Ekitaldiko emaitzei egotzitako ustiapeneko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak, merkataritza-jarduerari lotuak	15.931	16.796
Langile-gastuak	(5.239.328)	(5.111.716)
Soldatak, alokairuak eta antzekoak	(4.085.658)	(3.984.168)
Gizarte-kargak	(1.153.670)	(1.127.548)
Jardueraren bestelako gastuak	(23.171.684)	(23.366.258)
Kanpoko zerbitzuak	(23.134.851)	(23.276.263)
Zergak	(20.478)	(20.054)
Merkataritza-eragiketen ondoriozko horniduren galerak, narriadura eta aldakuntza	(16.251)	(69.687)
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(104)	(254)
Ibilgetuaren amortizazioa	(409.204)	(398.531)
Hornidura-soberak	-	-
Bestelako emaitzak	(28.078)	100.044
Jardueraren soberakina	634.880	861.591
Finantza-sarrerak	3.662	4.142
Balio negoziagarrienak eta beste finantza-tresna batzuenak		
Hirugarrenetan	3.662	4.142
Finantza-gastuak	(250.202)	(259.866)
Hirugarrenetikozko zorren ondoriozkoak	(250.202)	(259.866)
Kanbio-diferentzia	(8.507)	(21.131)
Finantza-eragiketen soberakina	(255.047)	(276.855)
Zerga aurreko soberakina	379.833	584.736
Mozkinen gaineko zerga	-	-
Ekitaldiaren soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldakuntza (I)	379.833	584.736
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak		
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.070.087	1.634.864
Ondare garbiaren aldakuntza ondare garbian zuzenean aitortutako diru-sarreraren eta gastuen ondorioz	1.070.087	1.634.864
Ekitaldiaren soberakineko birsailkapenak		
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	(1.186.510)	(1.036.450)
Ondare garbiaren aldakuntza ekitaldiaren soberakineko birsailkapenen ondorioz	(1.186.510)	(1.036.450)
Ondare garbiaren aldakuntzak ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarreraren eta gastuen ondorioz (II)	(116.423)	598.414
Gutzizko emaitza, ondare garbiaren aldakuntza-ekitaldian (I + II)	263.410	1.183.150

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

Urteko kontuen memoria

2018ko abenduaren 31n

(Gaztelaniaz dagoen jatorrizkoaren itzulpena)

Fundazioak erabilitako baliabide ekonomikoak guztira

Gastuak / Inbertsioak	Euro			
	2018		2017	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Ustiapeneko kontsumoak	2.441.607	2.682.855	2.227.877	2.625.234
Langile-gastuak	6.053.124	5.239.328	5.764.881	5.111.716
Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkidurak	457.518	409.204	398.531	398.531
Bestelako gastuak	21.506.962	23.155.329	21.704.495	23.296.315
Jarduera eta kreditu kobrazinen galerak	8.500	145.898	8.500	170.729
Finantza-gastuak eta gastu parekatuak	211.045	264.148	203.129	288.000
Bestelako gastuak	1.000	77.933	1.000	35
Gastuen azpigutzizkoa	<u>30.679.756</u>	<u>31.974.695</u>	<u>30.308.413</u>	<u>31.890.560</u>
Ibilgetuaren eskuratzeak (ondare historikoko ondasunak salbu)	-	209.362	-	190.147
Zor ez-komertziala kitatzea	-	-	-	-
Inbertsioan guztizko partziala	-	<u>209.362</u>	-	<u>190.147</u>
Erabilitako baliabideak guztira	<u>30.679.756</u>	<u>32.184.057</u>	<u>30.308.413</u>	<u>32.080.707</u>

Fundazioak lortutako baliabide ekonomikoak guztira

Fundazioak lortutako sarrerak	Euro			
	2018		2017	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Berezko jardueraren diru-sarrerak	17.524.786	16.944.582	18.013.256	17.700.702
Merkataritza-jardueren sarrera arruntak	9.467.747	10.958.124	8.608.934	10.392.626
Sektore publikoko diru-laguntzak	-	15.931	-	16.796
Bestelako sarrerak	3.687.223	4.271.375	3.686.223	4.158.641
Bestelako sarrera motak	-	<u>164.516</u>	-	<u>206.531</u>
Lortutako sarrerak guztira	<u>30.679.756</u>	<u>32.354.528</u>	<u>30.308.413</u>	<u>32.475.296</u>

Fundazioak lortutako bestelako baliabide ekonomikoak	Euro			
	2018		2017	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Egindako zorrak	-	-	-	-
Hartutako bestelako finantza-obligazioak	-	-	-	-
Lortutako baliabideak guztira	-	-	-	-

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA
Urteko kontuen memoria

Eskudiru-fluxuen egoera-orriak

Xehetasun hau dute:

	<u>2018</u>	<u>2017</u>
Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak		
Zerga aurreko ekitaldiko soberakina	379.833	584.736
Emaitzaren doikuntzak		
Emaitzaren amortizazioa	409.204	398.531
Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak	40.232	64.206
Diru-laguntzen egozpena	(1.186.510)	(1.036.450)
Finantza-sarrerak	(3.662)	(4.142)
Finantza-gastuak	250.202	259.866
Kanbio-diferentzia	8.507	21.131
Kapital zirkulatuazalean izandako aldaketak		
Izakinak	(78.766)	48.152
Zordunak eta kobratzeko kontuak	220.758	(56.281)
Bestelako aktibo arruntak	(937)	10.578
Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontuak	(430.279)	484.881
Bestelako pasibo arruntak	384	(242)
Bestelako aktibo eta pasibo ez-arruntak	-	20.317
Ustiapen-jardueren bestelako eskudiru-fluxuak		
Interesen ordainketak	(251.183)	(260.962)
Interesen kobrantza	<u>3.662</u>	<u>4.142</u>
Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak	<u>(638.555)</u>	<u>538.463</u>
Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak		
Inbertsioen ondoriozko ordainketak		
Ibilgetu ukiezina	(12.112)	-
Ibilgetu materiala	<u>(209.362)</u>	<u>(190.147)</u>
Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak	<u>(221.474)</u>	<u>(190.147)</u>
Finantza-jardueren eskudiru-fluxuak		
Ondare-tresnen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak		
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.070.087	1.634.864
Finantza-pasiboaren tresnen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak		
Jaulkipena		
Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak	203.316	-
Kreditu-erakundeekiko zorrak itzultzea eta amortizatzea	(220.000)	(220.000)
Bestelako zorrak	<u>(13.269)</u>	<u>(23.333)</u>
Finantza-jardueren eskudiru-fluxuak	<u>1.040.134</u>	<u>1.391.531</u>
Eskudiruaren edo baliokideen murrizketa/gehikuntza garbia	<u>180.105</u>	<u>1.739.847</u>
Ekitaldiaren hasierako eskudirua edo baliokideak	<u>5.351.819</u>	<u>3.611.972</u>
Ekitaldi-amaierako eskudirua edo baliokideak	<u>5.531.924</u>	<u>5.351.819</u>